

TXINAKO HARRESI HANDIA TXIKITZEN ARI DA

Irakurgaia

Mitorik zabaldu eta onartuenetakoa da

Txinako Harresi Handia espaziotik ikusi daitekeela. Baina mito faltsua da; Neil Armstrongek berak adierazi zuen Ilargitik



kontinenteak, aintzira handiak eta bestelako elementu naturala batzuk bereizi zitezkeela, baina handik ez zela gizakiak eraikitako egiturarik antzematen.

Bada, harresia lurretik bertatik ikustea geroz eta zailagoa izango dela dirudi.

UNESCOK monumentua babestu behar dela dio; Den Xiaopingek “Maita dezagun gure Txina, zaharberritu dezagun gure harresia” kanpaina abiarazi zuen 1984an. Alferrik. Txinako Kultura Ondarearen Estatu Administrazioak joan den ekainean jakinarazi zuenez, jatorrizko 6.400 kilometroetatik 2.000 baino gehiago erabat desagertu dira. Eta beste asko galtzen dira urtero. Herritar pobreenek betidanik kendu izan dizkiote harriak beren etxeak eraikitzeko eta, azken urteotan, harresia milaka zati txikiagotan desegiten ari dira turistei saltzeko.

Horien joan-etorriek eta euriteek ere ez diote mesederik egiten egiturari. Shandong probintzian 61 kilometroko zatia zaharberritzeko aurrekontua egin dute: 208 milioi yuan (30 milioi euro). Biderketa eginez erraz ondoriozta daiteke Txinako Harresi Handia osorik eta behar bezala babestea ezinezkoa dela.

Galdetegia

1. Egia da Txinako Harresi Handia zerutik ikusi daitekeela?
2. Zer ikusten da zerutik Neil Armstrongn astronautak dioen bezala?
3. Zein urtetan hasi ziren Txinako Harresia zaharberritzeko kanpaian?
4. Zenbat kilometro ditu hondatuta harresiak?
5. Zertarako erabiltzen dituzte Txinako herritar pobreak harresiko harriak?
6. Milioka turistak jasotzen ditu bisitari harresiak, horrek mesedea egiten dio?
7. Zenbat kilometro berrituko dituzte Shandong izeneko probintzian?
8. Harresia oso luzea denez, posible da dena babestea?